

| [Kontaktua](#) | [Informazio orokorra](#)

Bilatu

[Bilaketa aurreratua](#)

## Jarduerak

- ◆ [Eremu instituzionala](#) (9)
- ◆ [Eskolako kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilera](#) (85)
- ◆ [Gelaz kanpoko jarduerak](#) (5)

## **Ikasleen artean azpiegitura. EKHIA taldearen sorrera**



### **DATU OROKORRAK**

#### **Jarduera mota:**

- ◆ **Eremua:** Eskolako kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilera
- ◆ **Esparrua:** Ikasleak
- ◆ **Eragin esparrua:** Motibazioa, girotzea



**Nori zuzendua:** Ikasleak (DBH)

**Partaide kopurua:** Talde handia azpimultzotan

#### **Iraupena:**

- ◆ Ikasturtearen hasieran sorrera. Saio bat, 50'-koa.
- ◆ Ikasturtean zehar lana.Hamabostean behin, saio bat, 50'-koa.

**Arduraduna:** Euskara mintegiko arduraduna, taldea bera

#### **Arduradunaren zeregina:**

- ◆ Lan taldea eratu.
- ◆ Ekintzen antolamendua eta koordinazioa
- ◆ Ikasleekin batera ekoizpenari azken gainbegirada eman.

#### **Materiala:**

- ◆ Tokia.
- ◆ Giza baliabideak.
- ◆ Laguntza ekonomiko txiki bat beraiek antolatutako ekintzentzat.

### **HELBURUA**

- ◆ Norberaren eta besteen euskararen erabilera sustatzea, kontzientzia hartzea, txikiagoentzat eredu izatea.
- ◆ Ikastetxe barruan zein kanpoan euskararen inguruan egin daitezkeen ekintzen berri ikastolan zabaltzea.
- ◆ Ikasleak normalkuntzaren partaide bihurtzea (motibazioa).

## AZALPENA

---

- ◆ Euskararen kontzientzia sendoa edota euskaraz bizi den ikasle batekin kontaktatu.
- ◆ Ikasle horri euskararen indartze horretan irakasleok beste ardura duela sentiaraztea. Kontuz! Ez dezatela karga bat gehiago balitz bezala ulertu, helduen gauza bezala baizik.
- ◆ Ikasle horrek bilatu behar ditu lagunen batzuk taldea osatzeko.
- ◆ Plana osatu:
  - ◆ Taldearen izena.
  - ◆ Eginkizunak.
  - ◆ Plana, ikastetxe barruan burutzeko.
  - ◆ Gogoetarako momentuak.
- ◆ Irakasle bat (aproposa dena) taldearekin sistematikoki batzen da.
- ◆ Beste irakasle batek kanpo zein barruko euskararen aldeko ekintzak taulatu batean jartzen ditu, taldearen eginkizunaren osagarri gisa

## EBALUAKETA IRIZPIDEAK

---

- ◆ Lan taldeak euskaraz funtzionatu du.
- ◆ Ekintzak era arrakastatsuz gauzatu dira
- ◆ Testuetan euskara zuzena, egokia eta jatorra erabili dute.
- ◆ Ikasleak euskararen normalizazioan partaide sentitu dira.

## OHARRAK

---



Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Saila

koordinatzaileak: **Ulibarri programa**. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza  
Euskara Zerbitzua. NOLEGA. Informazioa: 945 018345

Web gunearen ardura: **UEU**  
Otaola hiribidea 1 (Markeskua), 20600 Eibar. 943 821426

2.744.399 bisitari | Irigarritasuna | Legezko oharra